

# MAITE ARTOLA

Deskribapena: Maite Artola eta Kike estudio batean eserita ageri dira elkarrizketan.

Maite: “Bazegoen hitzaldi bat nola hitz egin publikoan eta pribatuan, irratian eta telebistan eta pentsatu nuen oso baliagarria izango zitzaidala. Eta hango adituak, hitzaldia ematen zuen pertsonak esan zuen aurrena, broma eran, bazegoela pilula bat, ez? Eta jende askok esaten zuen “jo, balitz!”, ez? Lasaigarri bat benetan, ba jendaurrean kentzen dizuna bertigo hori baina gero eman zituen bi pista nik uste dut, niri behintzat baliagarri izan zaizkidanak eta dira bat, jardun, zenbat eta gehiago jardun orduan eta lasaiago eta bi, esan nahi duzun hori buruan argi eduki, ez? Eskema bat, ez du esan nahi inprobisatzeko batere tarterik uzten ez duzunik baina, esan nahi duzun hori, buruan nahiko argi eduki.”